

**Lezoko Udala**  
**Azterketa teoriko-praktikoa**  
**Berdintasun-teknikaria**  
**2024ko apirilaren 25ean**

**B zatia: Proba teoriko-praktikoa (40 puntu)**

**B.1 galdera (20 puntu)**

Imajinatu 7.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerrri bateko berdintasun-teknikaria zarela, eta udalerriko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren prestaketa, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa kudeatu, koordinatu eta bultzatu behar dituzula.

- 1- Zein marko teoriko eta edukitan oinarrituta kokatuko zenuke Plana testuinguruan, jardun-eremuak eta eremu horien helburuak justifikatze aldera? (4 puntu)
- 2- Zer oinarri juridiko eta programatiko izan behar du Planak erreferentzia gisa, eta zergatik? (3 puntu)
- 3- Zein prozesu diseinatuko zenuke Planaren lan-fase bakoitzerako, eta fase bakoitzean zein eragilek parte hartu behar dute eta zergatik? (4 puntu)
- 4- Zer esku-hartze eremu izan behar ditu Planak eta zeintzuk izan beharko lirateke eremu bakoitzerako helburu estrategikoak? (3 puntu)
- 5- Zein izango litzateke Planaren kudeaketa-eredua? (3 puntu)

Bereziki baloratuko dira argitasuna, sintesia eta ordena eta elkarrekin erlazionatzeko gaitasuna ideiak azaltzean (3 puntu).

**B.2 galdera (20 puntu)**

Lehenengo ataleko kasuarekin jarraituz, hau da, udalerrri bereko berdintasun-teknikaria zarela, imajinatu udalerriko emakumeen elkarte-sarearen partaidetzarako eta elkarrizketarako gune feminista bat jarri behar duzula martxan.

- 1- Zer testuinguru-elementu hartuko zenituzke kontuan parte hartzeko espazio mota definitzeko? Arrazoitu erantzuna. (4 puntu)
- 2- Zer prozesu edo ekintza jarriko zenituzke abian emakume feministen parte-hartzea bultzatzeko partaidetza-gunean? (4 puntu)
- 3- Zer lan-prozesu eta egitura jarriko zenituzke abian, Udalak partaidetza-gunearekin hitz egin eta bere politika definitzeko orduan hura kontuan har dezan? (5 puntu)
- 4- Zure ustez, udaleko esku-hartze arloekin lotutako zein politika landu daitezke partaidetza-gunean eta zergatik? (4 puntu)

Bereziki baloratuko dira argitasuna, sintesia eta ordena eta elkarrekin erlazionatzeko gaitasuna ideiak azaltzean (3 puntu).

